



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO


hitza



Asteazkena
2009-02-18

VIIURTEA 1.632.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ezker-eskuin: Joselu Andueza, Andoni Iturzaeta eta Jokin Monfort, atzo Ferialekuan eginiko prentsaurrekoan. I.T.

AZKENEAN HEMEN DIRA TOLOSAKO INAUTERIAK

TOLOSA Egun bat baino ez da geratzen Inauterietarako; atzo aurkeztu zuten egitaraua udal ordezkariak; urteroko bideari eutsiko diote 4

NORMA VAZQUEZ
GENERO INDARKERIAN ADITUA

«Gazte askok maitasuna ulertzeko modu atzerakoia dute»

TOLOSA Gaiari buruzko diagnostikoa egingo du 5

Riaño, Nafarroako Bertsolari Txapelketatik at

LEITZA Azkenaldian epaileen lana kritikatu dute parte-hartzaileak eta bertsozaleak 7

Bi urteko kartzela zigorra ezarri diote Pello Olanori

LIZARTZA Audientzia Nazionalak atzo eman zuen jakitera epaia; 12.000 euro ere ordaindu beharko dio Otaolari «heriotza mehatxuak» egiteagatik 7



N.LATABURU

MARIAN LAZKANO GIPUZKOAKO EAJ-REN ZERRENDAGAIA

«Euskadirentzat Euskaditik gobernatzen jarraituko dugu»

HAUTESKUNDEAK Ibarretxe «berriro lehendakari» ikusten du Zizurkilgo alkateak 2



IBAIALDE ANGULAK

**Tolosako inauterietarako
eskaintza berezia**

angula kiloa 380 €

bi arraindegi hauen eskutik dator eskaintza:

ARTOLA arraindegia • Tel.: 943 67 44 06

LOIRA arraindegia • Tel.: 943 65 00 13

festa on guztioi!

E Elkarrizketa

MARIAN LAZKANO » EAJren Gipuzkoako zerrrendako hautagaia

Politika » Egungo egoerari irteera emateko EAJ alderdia «egokiena» dela dio Lazkanok, «orain arte eginiko kudeaketa egokiari» jarraipena emanez.

NOELIA LATABURU

Martxoaren 1aren ondoren «Juan Jose Ibarretxe berriz lehendakari» ikusten du Marian Lazkano Zizurkilgo alkateak (Zarautz, 1957). Bera Eusko Alderdi Jeltzalearen Gipuzkoako zerrrendatan dago, hamabigarren postuan. «Orain inoiz baino gehiago» bere alderdiaren eta Ibarretxeren beharra azpimarratu ditu.

EAJren programaren ildo nagusiak zeintzuk izango dira?

Konfiantza eta konpromisoa dugu Euskadirekin. Honen baitan, hiru ildo nagusi ditugu; lehena, presazkoa, krisiari ekitea eta langabeziaren aurka borrokatzea; bigarrena, garrantzitsua, suspertzerako prestatzea eta Euskadi giza hazkuntza iraunkorraren abangoardian kokatzea; hirugarrena, nahitaezkoa, bakea; giza eskubideen eta bakearen alde lan egitea, hain zuzen.

Azaldu itzazu banaka. Krisia aipatu duzu lehenik.

Neurri asko jarriko ditugu martxan. Gure konpromisoa pertsonak dira. Gure programaren zati zabal bat bideratu dugu krisiari aurre egiteko. Nola? langileei babesa emanez eta enplegurik ez duten pertsonen lagunduz, pertsonarik ahulenak lagunduz, enpresei lagunduz hauek enplegua mantentzen, inbertsioa lagunduz,.... Krisiatik aterako gara, eta helburua indartuta ateratzea da.

Bigarrena, garrantzitsua, suspertzerako prestatzea.

Enplegua suspertzeko eta ongizatea areagotzeko oinarriak ezarriko ditu Eusko Alderdi Jeltzaleak. Gure motorrak berrikuntza, berdintasuna, hezkuntza eta kulturaren identitatea, herritarren partaidetza eta autogobernua dira. Gure erronka ezin da izan epe motzean krisiaren eraginak arintze hutsa. Krisia igaroko da eta gu indarturik aterako gara krisiatik.

Hirugarrena, nahitaezkoa, bakea. Gure erronka zentzu honetan etnik gabekoa da eta ez dugu etsiko bake hori lortu arte. Konpromisoak argiak dira: giza eskubideak sustatzeko eta defendatzeko egitasmo orokorrak finkatzea, terrorismoaren biktimenganako elkartzasuna azaltzea, indarkeria desagertitzea, eskubide zibil eta politikoaren defentsa egitea, adiskidetzarako oroimena osatzea eta bakerako hezkuntza garatzea.

Lehendakariak hautagaia Juan Jose Ibarretxe da berriro. Bere figura bereziki azpimarratu du al-



N. LATABURU

«Euskadirentzat Euskaditik gobernatzen jarraituko dugu»

derdiak kanpainan. Zer eskaini dezake?

Ibarretxek esperientzia handia du. Aurretik alkate, gobernu kide izanda eta azken urteetan lehendakari bezala. Ez dut dudarik, orain inoiz baino gehiago bera da lehendakari izateko pertsonarik egokiena. Ilusioa eta esperantza sortzen du Ibarretxek eta egungo egoerari aurre egiteko gai da. Bere esperientziak aterako digu egoera honetatik, eta indartuta gainera.

Beste alderdiak eta hautagaiak nola ikusten dituzu?

Esan bezala, esperientzia ezinbestekoa da eta gainontzekoek ez dute Ibarretxek duen esperientzia hori. Patxi Lopezekin, esate baterako, Euskadiri dagozkion erabakiak Madrildik hartuko dira. Jendeak honetaz jabetzea beharrezkoa da. Lopezin alderdian garrantzitsuen Zapatero da eta azken honen interesen arabera hartuko dira era-

bakiak. Krisiatik aterako digula dio baina ikusi nola dauden Espainian. Ezin badute hori konpondu nola konponduko du hemengoak? EAJk Euskaditik gobernatuko du Euskadirentzat, autogobernua dagure ongizatearen motorra.

Azken lau urte hauen zer balorazio egiten duzu?

Oso ona. Lege asko atera dira aurrera azken lau urteetan eta kudeaketa egokia egin da. Hori dela eta, krisiaren datuak gurean ez dira hain txarrak. Hala ere, datu hauek hobetzeko lana egin behar dugu. Krisiatik aterako gara, eta indartuta aterako gara. Azken lau urteetan hirukoak ongi funtzionatu du.

Baina aurrean ez zarete EAekin aurkeztuko.

EA alderdiak erabaki hori hartu zuen eta guri errespetatzea baino ez zaigu errespetatzen.

Aurreko legealdiko EAJren apustu gogorra herri galdeketa izan

zen, baina azkenean ez zen aurrera eraman.

Guk argi dugu herriari eman behar zaiola hitza. Horregatik eman genion garrantzia herri galdeketa. Eusko Legebiltzarrak onartu zuen, baina ez zen aurrera eraman Madrildik erabaki hori hartu zutelako. Lopezekin ere berdina gertatuko da, Madrildik hartuko dituztela erabakiak, ez Euskaditik. Hor dago ere Alderdien Legea.

Berri ere saiatzeko prest zaude, beraz.

Guk argi duguna, esan bezala, herriari duela hitza. Bider horretatik egingo dugu lan.

Gatazka politikoaren irtenbidea ere bide horretatik joango al da?

Elkarrizketa da giltza. Saiakerak egon dira eta berriz ere egon behar dute. Baina ez bakarrik politikariaren aldetik, beste sektore batzuek ere lan egin behar dute horretarako.

Pasa den astean Madrildik jakitera eman zuten D3M plataformak eta Askatasuna alderdiak ezin dutela hauteskundetara aurkeztu.

Madrildik etorri den beste mugimendu bat da. Euskadiko politika panoramaren beste peoi bat joko kanpo utzi dute erabaki horren ondorioz. Guk behin eta berriz esan dugu Alderdien Legearen aurka gaudela, hori ez da irtenbidea.

Azken lau urteetan agintean egon da EAJ. Maritxoak 1aren ondoren, zer emaitzak aurreikusten dituzu?

Nik Juan Jose Ibarretxe ikusten dut berriz lehendakari. Bera da

«Patxi Lopezekin Euskadiri dagozkion erabakiak Madrildik hartuko dituzte»

«AHTren aldekoak gara, ezin diogu utzi tren honi alde egiten; Euskadi Europarekin lotuko du»

«Madrilek beste behin politikagintzaren peoi bat joko kanpo utzi du, gu aurka gaude»

egokiena horretarako. Gogor ari gara lanean eta horrela jarraituko dugu.

Politikarie ez zaizue gustatzen ondorengo hitzarmen posibleetaz hitz egitea...

Nik nahiago dut martxoaren 2ra itxaron horretaz hitz egiten hasteko. Lehendabizi utzi diezaiogun herriari hitz egiten.

Herritarrek irudipena dute kanpainan politikariak kalean daudela, baina maritxoak 1etik aurrera ez direla gehiago azaltzen.

Egia da orain politikariak kalera ateratzen garelako gure lana zein izango den azaltzeko, baina, martxoaren 2tik aurrera herritarrek jakin behar dute eskubide guztia dutela kanpainan zehar hartutako konpromiso horiek gogorarazten eta betearazten.

Abiadura Handiko Trenaren inguruan ere eztabaida piztuta dago.

EAJ beti AHTren alde egon da. Ezin diogu utzi tren honi alde egiten. Euskadi Europarekin lotuko du trenak eta onura ugari ekarriko dizkio herritarrei. Azpiegiturak garapenaren zerbitzura jartzea da gure erronka eta datorren legealdian euskal Ya betekoa dela bermatzen dugu.

Alderdiak, Ibarretxe, hitz egin duzu. Eta zuk zeuk zer eskainiko duzu legebiltzarkide izatera hel-tzen bazara?

Batez ere, ilusioa eta nire lana. Nik ere esperientzia badut, Gipuzkoako jentetan batzarkide izan naiz eta Zizurkilgo alkate bezala ere badut esperientzia.

Hizki-Marrazki ipuin marraztuen lehiaketa, abian

Anoeta » 8 urtetik gorako Ikastolako ikasleek zein anoetarrek parte har dezakete; lanak aurkezteko epea, martxoaren 6ra arte.

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak eta Ikastolako aurtengo Hizki-Marrazki ipuin marraztuen lehiaketa abian jarri dute. 8 urtetik gorako Anoetako Ikastolako ikasleek eta Anoetan erroldatutako pertsona guztiak har dezakete parte.

Ipuinak marraztuak izango dira, hau da, euskarazko testuz eta marrazkiz osatuak. Lanak bakarka edo binaka egin ahal izango dira. Ipuinak eskuz edo ordenagailuz idatzita egon daitezke; gutxienez orrialde bat eta gehienez hiru aur-

keztuko dira, marrazkiak barne. Ikastolako ikasleak direnek ikaste-txean bertan utzi dezakete lana eta gainerakoek udaletxean. Martxoaren 6a da azken eguna lanak aurkezteko.

Sariak ondorengoak izango dira: LH3-4 mailan, lehenengo saria 50 euroko bonoa, bigarrenagoa 40 euroko bonoa eta hirugarrenagoa 30 euroko bonoa izango dira. LH5-6 mailan, 60 euroko, 50 euroko eta 40 euroko bonoak izango dira sariak. DBH1-2 mailan, 70, 60 eta 50 euroko bonoak. DBH3-4 mailan, 80, 70 eta 60 eurokoak. Eta helduen mailan, 90, 80 eta 70 eurokoak.

Lan saritu guztiak liburuxka batean publikatuko dituzte antolatuak. Sari banaketa apirilaren 23an izango da, Liburuaren Nazioarteko Egunarekin bat eginez.

Ipuinaren tailerra antolatu du Asvineneak

ERREDAKZIOA

Asvineneak ipuinaren tailerra antolatu du Ahoz-Aho programazioaren baitan. Behar bereziak dituzten haurrei zuzendutako elementuak aztertuko dira eta baita ipuinaren eta barneratzearen kulturaren arteko harremanak ere.

Ikastaroa 10 ordukoa izango da eta martxoaren 6an, 18:30etik 20:30era, eta 7an, 09:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 19:30era, izango da. Parte-hartzaile kopurua mugatua da eta izena emateko epea martxoaren 1a arte izango da.

Tolosako Kultur Etxean egingo da ikastaroa, 60 euroko kostua izango du eta Ana Torrellas ipuin-kontalari venezuelarrak emango du. Torrellasek ahozkotatuna erakusten die irakasleei eta psikoterapeuta bezala ere lan egin du.

Ikastaroa irakasleei, gurasoei, aisialdiko begiraleei, hezkuntza ikasleei, aktoreei, ipuin-kontalari... zuzenduta dago. Informazio gehiago nahi duenak asvinea@gmail.com helbidera idatzi edo 647 201 401 telefono zenbakira dei dezake.

Aizkardikoen hurrengo goizeko irteera, Tolosako Inauterietara

ERREDAKZIOA

Villabonako Aizkardi mendi elkartek goizeko irteeren bigarren ibilaldia antolatu du iganderako, hain justu, Tolosako Inauterietara joateko.

Villabonatik aterako dira Onddo aldera joateko eta Belabieta (630 metro) aldera jarraituko dute. Hortik Uzturrera (730 metro) joango dira eta bertatik Tolosara jaitziko dira, Inauterietako karrozen desfileaz gozatzeko.

Ibilaldian parte hartzeko ez da izena eman behar inon. Nahiko da igandean 08:30ean Olaederrako kiroldegia aurrera azaltzea.

Z Zurea da hitza

Jesusen Bihotzakoen Inauteri festak

JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA

Villabonako Ikastolan *hippyz* mo-zorrotzea erabaki dugu bazter guztiak alaitzeko asmoz. Zizurkilgo ikastolan, berriz, semaforoz. Festa hauek Villabona eta Zizurkilgo Udalek antolatzen dituzte herriko ikastetxeekin batera.

Ostegun Gizenean (Villabonan), udaletxe aurreko emanaldia-rekin hasiko da festa. Ondoren, herriari zehar abiatuko gara festa eta umore onaz abalduz. Azkenik, plaza amaituko dugu festa askari eder batekin. Ostiral Mehe egunean (Zizurkilan) desfilea izango da lehendabizi eta bukatzeko emanaldia eta askaria plaza.

Diru laguntzak euskara ikasten ari direnentzat

ERREDAKZIOA

Anoetako eta Irurako Udalak diru laguntza deialdia egin dute 2008-2009 ikasturtean euskara ikasten ari diren herritarrentzako. Hilaren 27ra arte dago eskaerak aurkezteko epea.

Udaletxe bakoitzean eskura daiteke bete behar den eskaer-orria. Bestalde, nortasunaren egiaztagiriaren fotokopia behar da. Horretaz gain, banketxe edo aurrezki kutxa sinatutako agiria,

kontu korrontearen titularra izatea egiaztatzen duena, eta baita banketxea edo aurrezki kutxaren agiria matrikularen gastua egin dela egiaztatzen duena.

Aurkeztu behar da ere langabetxartela edo jubilatu-txartela hala badagokio. Azkenik, euskaltegiak emandako ziurtagiria aurkeztu behar da. Bertan ikaslearen matrikula-kopurua, asistentzia eta aprobetxamendua azaldu behar-kotu du.



Ainhua Garmendia kolpea egiten, Oihana Garayalderen begiradapean. HITZA

Su-Berrikoen emaitza gazi-gozaok asteburuan

ERREDAKZIOA

Anoetako Su-Berri pilota elkarte-kideek emaitza gazi-gozaok izan zituzten asteburuan. Alde batetik, DV Sariko finalerdietan izango dira Itsaso Urkizu eta Nagore Arozena, bakoitza bere bikotearekin. Su-Berriko beste pilotariak, Patri Espinarrak, ezin izan zuen finalerdietarako txartela lortu.

Emakumea Pilotari Irekian be-rriz, Ane Arteaga eta Maitane Abu-

ruzak beraien bigarren garaipena eskuratu zuten. Bestalde, Garmendia-Garayalde Su-Berriko bikoteak ezin izan zion Aristorena-Contin bikote faboritoari kontra egin, urduritasun handiegiz jokatu baitzuten.

Iparaldeko txapelketako partidari dagokionean, oraingoan Itsaso Urkizu eta Patri Espinarrak ezin izan zioten Zaharrer Segiko Bor-dagaray-Serreri irabazi.

POSTABIDEZKOBOTOA VOTAPORCORREO

Datorren martxoaren 1ean ezin bazara bozkatzera joan, gogora ezazu postazko botoa emateko aukera ere baduzula.

Si el 1 de marzo no puedes acudir a las urnas, recuerda que puedes votar por correo.

Hurbidu zaituz zure Alkartetxera edo dei egizuz: Informate en tu Alkartetxe o llámanos:

ARABA: 945 23 27 62 BIZKAIA: 94 416 10 33
GIPUZKOA: 943 02 01 30 NAFARRA: 948 22 06 91

EUSKAL KARTASUNA.ORG

Gogoratu, otsailaren 18 arte. Recuerda, sólo hasta el 18 de febrero



EGUN BAT BESTERIK EZ

Inauteriak Bihar egunetan, txupinazioa eta pregioaren batera hasiko dira Inauterik; egituraari dagokionez, urterokoari eutsiko diote.

INGOTERRADOLAS
Atzerantz kontzertuko unean da, gaitzaren dandak hasten; urteko jaiak zoroekin. Bihar egunetan iri-tearkein batera emango zaie hasiera Inauterik, ohi bezala, txupinazioa eta pregioarekin. Une horretan, taik eta astearter biarte jaiak ez du etengabeko, mozturikoa da kontua da hori, eta horregatik gaurtago esateko Inauterian ingurua, zioen atzo eguneko Inauterian aurkepenen, Andoni Inurzaeta Tolosako Udaleko kultur zinegotziak. «Zaila da zaila zaila Tolosako Inauterik zergatik diren hain bereziak, baina kontua da tolosarrek berrak bizi dituzte, eta garrantzitsua herria gaurtik marguluta egoten dela izaten da».

dira, eta ia bezala, oholza txiki bat jarri ondoren zuzen-plazaren erdian hobeserako. Hala, Udaltziki gogorazki nahiz izan dute 16 urte gutxienez izan behar direla hauean, nahiz sokamuturraren parte hartzeak. Horretaz gain, adierazi dute, «segurtasun arrazoiak direla eta» ez dute utziko tendido- ra gogorren sarrearik gabe, eta hauek aldeaz aurretik (gaur Leio- rren 11:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 20:30era) eta igandetik aurrera zozon-plazan 11:00etik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara) eskuratzeko gomendatu dute, «hara luzeak sortu ez daitezen».

Protagonistak zenbakitan
Guztira, 22 enbaga arloko dira, bakoitza 25-30 musikariz osaturik, eta hauek 48 irtenaldi egingo dituzte. Bestalde, larriak, kongerak eta aisiak italden artean 250 paret-hartzaile izango dira aurretik. Beraz, urteroko moduan herritar ugari hartu du parte Inauterik giroa jartzeko.

Musika zuzenean
Laurik eta zuzenean italden artean, Sinters eta Peachi Joke arloko dira, eta Astelentzen, berriz, Laim eta Hesian. Plaza Berria izango dira kontzertuak 23:30etik aurrera.

INAUTERITAKO BALKOI LEHIAKETA AMAROTZEN
Lagunen urtez, Amaroako Auzo Elkarrak antolatutako Inauteritako Balkoi Lehia eta egongo dute Amaroztuz. Aurretik, ere epaimahaia lan zaila izango du hirubalkoi polterak aukeratzeko, eta hauek, 100, 75 eta 50 euroko sariak jasoko dituzte. Epaimahaia aurreko urteko ikidek osatuko dute, hau da, Auzo Saioista Argazke Mote, bere emazte Maite Sanchez eta Amaroako Auzo Elkarteak ikide den Guillermo Berito-Huaretik. Elkarteak auzotarrek animatzen dituzte euren balkoiak beste urte- etan bezala Inauteritako osagirik in apain dituzten.



Joseki Andueza Gasteria zinegotziak, Andoni Inurzaeta Kultur zinegotziak eta Jokin Monfort kultur telebista, atzo, Forlekuaren eguneko aurkezpenaren...

Egitaraia ohiko bidetik
Hala, aurretik izango den aldaketa nagusia lekukortzearen eraket eraginkor izango da, hau da, karrojen eta konparten bilbidera dagokiona. Hauek, nauri handiokak direnak Oriñak, San Frantzisko bilbikiak, Foruen etorbidea eta Nafarroa etorbidek igaro beharko dute. Gaitzaren ohiko bidetik bilbikiak dira.

Hilberria
JUAN JOSE AGIRRE AIZPURUA
(Eduki Agirre Nazariozko buruzagia)

JUAN JOSE AGIRRE AIZPURUA
Bioteknologia
Euskal Herriaren alde lanetan eman du Guterriaren, ezker dortsaleko kidea. Zuzen gogorazki sailazuzen, telebista eta elkarrizketak, gaitzaren burua, aho, bihotza. Zuk ere herri bakoitzeko inauterian zuzen zuzenarekin eta mundu bakoitzarekin. Eskerrikada eta musika bakoitzarekin. Tolosako ezker dortsalea

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da hilberriak-urteurrenaren-ekertzerak
HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle
ESKELAK * 19.00ak arte hartzen ditugu tolosaldean tolosaldekohitzan.info / Tel: 943-65 56 95

Elkarrizketa

NORMA VAZQUEZ Genero indarkerian aditua

«Egungo gazte askok maitasuna ulertzeko modu atzerakoia daukate»

Gazteak Genero indarkerian aditua den Norma Vazquez izan zuen atzo, gai honen inguruan, besteak beste, arazoaren abiapuntuak aztertzeko.



ESTREZA
Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta, genero indarkerian aditua den Norma Vazquez izan zuen atzo Tolosan. Bere ardurarikoa da Tokosan gai honen inguruko diagnostiko eta protokoloak eratzeko. Bestalde, atzoko ekimenaren kontu, martxoaren 14an autofeitekita ikastaro bat izango da. Interesa dutenek jada eman dezakete izena, Berdintasun sailarekin harremanetan jarrita.

Genero indarkeria izan zuzen hapiak atzoko mintzaldian. Baita, alde batetik, haren jatorria zein den azaldu nuen. Hau da, zeintzuk diren erasoaren arrazoi nagusiak. Bestalde, jendearen erantzua ohiokak diren mito batzuk, askotan ez direla horrela erakutsi nahi izan nuen. Estaroko, bikote behuaren artean izaten direla eraso gehienak, etorkinegan edo mendearen dauden emakumeen-gan.



Egun, kasu gehienetan, banantzen ari diren bikoteen artean ematen dira indarkeria kasuak
Hezkuntzan lan gehiago egiten da gai honen inguruan baina dirudien ez du eraginik
Oro har, zeintzuk dira erasoen abiapuntuak?
Egun, kasu gehienetan, banantzen ari diren bikoteen artean ematen dira erasoak. Senarrak ez du onartzen emazteak hartu duen erabakia, eta horren arrazoi indarkeriarajotzen da. Lehen horietan zengertzen dibortzio kasurik ia ez baitzegoen.
Alpatsu duzun bezala, bikote gazteen artean genero eta indarkeria kasu gehiago ematen dira.
Egungo gazteak, gaurak askotan oso aurera-erabakialdin badira ere, bikote harremanak ikusketoko gainan ohiak izaten dira. Maitasuna ulertzeko modu atzerakoia daukate askotan. Ondorioz, haurgan erasoak genero eta gehiagorik.
Hezkuntzan genero eta lan gehiago egiten ari da berditasunaren alde, honek ez al du eraginik?

Hurbil daukagun Lehendakaria. Pertsona nagusiena, euskaldun guztion Lehendakaria. Pertsonen arazoak konpontzeaz arduratzen den Lehendakaria. Formulak berrak bilatzen dituen guztiak inguru demokratikoan izan dezagun. Ibarretxe behar dugu. Oain, Inoz baina gehiago.
ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO

E Elkarrizketa**PELLO ZABALA** Eguraldian aditua

«Igandera arte egun politikak izango dira baina gero, euria»

Amezketak » Inauterietan zein eguraldi egingo duen argitu du; hasiera «polita, baina bukaera bustia» izango da, datorren astean elurra inguruetan ikusteko aukera izanik.

NEREA URBIZU

Pello Zabala (Amezketak, 1943) fraide frantziskotar, idazle, irrati-ko aurkezle, musikazale eta meteorologo ezaguna da. Zeinek berak baino hobee, Tolosako Inauterietan egingo duen eguraldiaz hitz egiteko eta argitzeko. Mapen laguntzarekin, egunez egun bere ustez zein eguraldi egingo duen adierazi du.

Ostegun Gizenean zer izango dugu?

Goizeko tenperatura hotzak seguru izango direla. Udako moztorroek gutxi balioko dute. Asteartean baino zikinxeago egongo da eguna, lainoren bat izango delako. Frantzi-iparra izango da eta zeruak zikinduko ditu, seguru. Edo-zein modutan nahiko garbietara joko du.

Ostirala beraz, garbiago?

Fresko baina zeru nahiko argiekin izango dugu.

Larunbatean mantentzera joko du?

Bai, joera hori izango da, garbia. Hiru egun hauetan euri konturik



N. URBIZU

ez du ematen dagoenik. Bihar akaso, lambro pixka bat, gehienez xirimiri pittin bat baina mapa batzuk behintzat ez dute ezer ere jartzen honetaz. Busti konturik ez dut ikusten ordura arte...

Are gutxiago entzuten ari garen elurra, ez?

Elurra datorren astean bai, bukatzean, inguru hauetara despedidarako iritsiko baita.

Zaldunitan zer ikusten duzu?

Igandean berean ere, ez da euririk ikusten, goiz freskoak beti, baina eguzkiutsu eta nahiko goxo, herenegun bezala, hain zuzen.

Baina astelehenean eta asteartean...

Horietan beste kontu bat: zikinxeago sartzen da, asteazkena bera ez

dute markatzen mapek. Lainoa eta euria eta pixkanaka okertzen hasiko da, asteartean bezala. Mendietan elurra izango dugu, baina ez da Tolosaraino jaitziko. Horrera euria iritsiko da.

Beraz, hasiera garbia eta bukaera grisa?

Bai, 19, 20, 21 eta 22 oso egun politikak izango dira, kolokan agian biharkoa. Baina besteak oso politikak ikusten dira. 23, 24 eta 25, despedida, hortaz, bustiagoko eta tris-teagoko ikusten da.

Eta tenperaturen aldetik?

Freskoak izango dira. Gauetan izotza botako du leku batzuetan behintzat. Hiru gradu zero azpitik... Larunbatean, igandean, izotza edo behe lainoa izango da toki batzuetan. Astelehenean epeltzen hasiko da, baina euria datorrelako [barrezka].

Eta arratsaldeetan?

Astelehenean eta asteartean nahiko fresko ikusten dira. Igandean, 12 gradu, ostegunean eta ostiralean 11 inguru... Aste hasierako egun horien antzekoa. Beraz, lehenengo parte oso polita, orduan, moztorro aldaketa egin beharko da [barrezka berriz].

Tolosako jendeari ez pentsa asko inporta zaionik...

Horretan sartuta dabilenari ez gehiegi, baina jakinaren gainean badakizu, bustita ibiltzea ez da gustukoa izaten.

L Laburrak**Martxoak 7an emakumeen afaria antolatatu dute**

ALEGIA » Emakumeen Nazioarteko Egunari begira, Alegian afari bat eta antzerkia antolatatu dituzte.

Afariari dagokionez, Txintxarri jabetxean izango da eta dagoeneko txartelak Kultur Etxean daude salgai 15 eurotan (menua berez 30 eurokoa da baina Udalar erdia ordainduko du). Martxoaren 7an izango da, 21:00etan. Menua honakoa izango da: urdai azpiko eta solomo iberikoa, makailao entsalada epela, espinaka eta ganbakin betetako piperrak, sagardotegiko makailao frijitu edo entrekota plantxan eta postrea. Informazio gehiago beharrez gero 943 65 46 98 telefonora dei daiteke.

Zazpi-lturri, hainbat finalaurreko jokatzekotan

AMEZKETAK » Amezketako Zazpi-lturri pilota eskolako pilotariek pozik egoteko arrazoiak dituzte, izan ere, pasa den asteburuan, binakako kadeteetan eta 22 urte azpikoen mailatan final-laurdenetara heldu dira. Nagusien ohorezko mailan ere, finalerdietarako sailkatu dira, baina noiz eta non jokatzeko dute ez dakite oraindik. Banaka kadeteen mailan Txukun Lakua 18, Zazpi-lturri (Gallurralde) 17 bukatu zuten. Binakakoan, berriz, Txarutaren aurka Gaztañaga-Jaka bikotek 22-11 irabazi zuten.

Intxurrek garaipena lortu du Axularren kontra

ALEGIA » Intxurreko bigarren mailako futbol jokalariek garaipena lortu zuten asteburuan, 3-2 Axular Lugaritzen aurka. Alegiako taldea orain bosgarren postuan dago, bederatzi punturekin. Datorren jardunaldia ez dute oraindik zehaztu noiz jokatu duen, baina Gazteak taldearen kontra aritu beharko dira. Hauek seigarren postuan daude.

Martxoaren 5ean, jubilatuentzako ibilaldia

AIZTONGO » Aiztongoko jubilatuen irteera antolatatu dute martxoaren 5erako. Kasu honetan, Oñatira joango dira. Bertan, Arantzazuko santutegia eta Arrikruz kobazuloak bisitatuko dituzte. Soraluze, jabetxean, bazkaldu ondoren Oñati bisitatuko dute. 25 euro balio du irteerak eta izena emateko epea hilaren 26a izango da, Aiztongoko bulegoetan: 943 69 39 30.

@ Eztabaida. Tolosako Inauterietan gainera: krisia dela eta, aldatuko al duzu moztorroa egiteko modua? Alegia, beste urte batzuetako zerbaite erabili duzu, zaharren bat zertxobait aldatuko duzu? Ala dena berria erosiko duzu? Eman zure erantzuna, besteena irakurri bitartean!

www.tolosaldeko-hitza.info

Amezketak UEMArekin lanean hasteko lehen urratsak ematen hasi da

ERREDAKZIOA

Amezketako Udala hasi da UEMArekin lanean. Honela, 56 dira Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea osatzen duten udalerriak. Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak egungo proiektuak aurkeztu ditu, eta lanean hasteko lehen urratsak ematen hasi da.

Amezketarrek UEMArekin egungo proiektuak ezagutu dituzte, lehenbizi; etorriberriak herri-tarteko egitasmoa, esate baterako. Zentzu horretan, Amezketan ahalgina egin nahi dute etorriberri harrera egiteko herritarren sarea eratzeko. Etxeetako buzoietan jasotako propaganda komertzialaren neurketa da beste zereginetako bat. Horrez gain, beste zeregina batzuk ere jaso dira, hala nola, euskararen erabilaren egoerari buruzko diagnostikoa egitea, merkataritza eragiteko zerbitzua, hizkuntza eskubideen urraketen aurkako kanpaina iraunkorra, webgune berria...

Herritarren konpromisoa

Bestalde, UEMArekin berrirapera eta *Ongi etorri UEMARA* esku orria jaso dute amezketarrek. Barne erabilera plana ere hartu dute zeregintzat, eta horren barruan, diagnostikoa eta erabilera plana egiteagatik diru laguntzak bideratu ditu. Gainera, herritar batzuek konpromisoa hartu dute buzoietako propaganda komertziala UEMArekin helarazteko, gaztelania hutsezko agiriekin behar diren neurriak hartzeko. Guztiaz eta udal administrazioko jarduneari UEMArekin irizpideak zein diren jakinarazteko, udal langileek hilaren 25ean egingo dute bilera UEMako teknikariarekin.

Mankomunitatearen hitzak

Amezketako Udaleko hautetsiek nahiko lukete herritarrek bere egitea UEMArekin irizpideak eta herritarrek UEMArekin eta euskararen aldeko dinamikian inplikatzeko. Horretarako, hainbat aukera ari dira aztertzen: jendaurreko aurkezpena egitea, euskara batzordea sortzea, herritar euskaltzaleez osatutako harreman sare bat osatzea...

Amezketak UEMAn sartzea bat, mankomunitateak honakoa adierazi du: «Euskarak bera nagusia den esparruak behar ditu, eta, besteak beste Amezketako arnasgunean topatuko du helduleku nahikorik, bai belaualdiz belaualdiko transmisioari, bai hizkuntzaren funtzio komunikatiboei, bai hizkuntzaren balio erreferentzialari dagokionez. Izan ere, udalerri euskaldunetan gordetzen dira euskararen mundu sinbolikoa, jatorria eta zuzentasuna».

Hainbat proiektu eskualdean

Azpiegiturak » Alegiak, Anoetak eta Adunak hainbat diru laguntza jaso dituzte, bideak, entzutegia eta haur parke bat egiteko.

Iragarki laburrak**LANA**

■ **Garbiketak.** Bigi garbitasunak. Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Irene: 695 70 82 71 edo 638 94 46 04.

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nalanda etorb. 11 behean - TOLOSA
Mag.: 670 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13

ERREDAKZIOA

Alegiak, Anoetak eta Adunak aste honetan zehar Espainiako Gobernuak bideratutako diru laguntzen baiezkoa jaso dute. Alegiak 215.919 euro frontoian obrak egiteko erabiliko du, izan ere, «behar handia du».

Adunak 64.848 euro parke bat

egiteko erabiliko du dirua, Txanxanenea etxearen ondoan. Anoetak 313.631 euro entzutegi bat egiteko erabiliko du.

Alegiak aurreko egunetan beste diru kopuru bat jasoko duenaren baieztapena jaso zuen eta 687.495 euro horiek Besitina auzora joateko bidea egiteko baliatuko dute.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Diego Riaño Tafallako saioan. Nafarroako Txapelketatik kanpo gelditu da leitzarria. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Diego Riaño Nafarroako Bertsolari Txapelketatik kanpo gelditu da

Leitza » Txapelketako orain arteko saioetan epaileen lanak kritika ugari sortu ditu bertsolari eta bertsozaleen artean.

ASIER IMAZ

Futboleaz bezala bertsotan ere epaileen lana sarri kritikatu ohi da. 2009ko Nafarroako Bertsolari Txapelketan ez daude denak ados

hauen puntuatzeko moduekin; «azken urteetan gaiak kritikatzeko ziren Nafarroako Txapelketan, aurtun epaileen lana».

Epaileen lana zalantzan

Aurtengo txapelketan lau kanporaketa jokatu dituzte. Haurtan 24 bertsolarik hartu dute parte; saio bakoitzean seik. Finalerdietan haseratik irteerako 17 bertsolari egongo dira; saio bakoitzeko lehen biek zuzenean lortu zuten aurrera

jarraitzeko txartela, besteak puntuazioen arabera sailkatu dira. Haur guztiei izako txapelduna, Julen Zelaieta, elkartuko zaie finalerdietan.

Epaileen lana aztertzeke, iritziak gain, orain arteko puntuazioak ikusi daitezke. Hauen arabera, lehen saioa sei bertsolariek finalerdietarako txartela lortu dute. Azken saioa laugarrena, Xabier Terreros, kalean gelditu da. «Aurrera egin duten bertsolari batzuk

bertsoa ezin bukatu ibili dira, hiru aldiz geldituz, trabatuz, etab. Xabier Terreros berriz, poto txar batengatik utzi dute kalean. Bertsokak azkar botatzen ditu, zuzen eta ideia onez jantziak». Diego Riaño leitzarriaren hitzak ziren hauek. Ez da epaileen lana zalantzan jarri duen bertsolari bakarra izan Riaño. Beteluko saioan ere jendea harriturik gelditu zen Erika Lagomaren 191 puntuekin; ez irabaztea merezi ez zuelako, bigarren gelditu zen Luzeri 13,5 puntu atera zizkiolako baizik.

Kritikak horrela, gauza bat argi dago, Nafarroako Txapelketa bizi-rik dagoela.

Iragan larunbata Tafallan

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren laugarren kanporaketa iragan larunbatean jokatu zen Tafallan. Kube aretoan 140 lagun elkartu ziren, «nahiz eta saioa apartekoa izan ez. Lehen faseko azken saioa izanik, bertsolarien gainean zegoen presioa ohi baino handiagoa zen eta hori nabaritu zen» Nafarroako Bertsozale Elkartearen arabera.

Tafallan elkartu ziren sei bertsolarietan puntu gehien lortu zituen Xabier Silveira izan zen, 187,5 puntuekin. Bigarrena Legarreta, puntu batetara eta hirugarrena Etxabe, 185 puntuekin. Hiru hauek finalerdietan egongo dira. Diego Riaño leitzarria bosgarren gelditu zen 165,5 puntuekin. Ondorioz, finalerdietatik at gelditu da Riaño.

Leitzarria «gustura» zegoen egindako lanarekin. Nahiz eta poto bat egin, aurrera pasatzeko aukerak ikusten zituen leitzarrik, «baina epaileek nahiko bazu puntuatu zuten. Alde horretatik nahiko triste» aurkitzen zen Riaño.

Aurrera begira jarrita, hurrengo urtean ere txapelketan izango dela aipatu du Diego Riaño, «berriro ere aterako gara, zer egingo dugu ba, etxean gelditu?».

Eskuz Binakako Txapelketan bi leitzarrik postu onean kokaturik aurkitzen dira

A. IMAZ

Hiruna zihoaztela Abel Barriolak min hartu zuen eskuineko eskuan. Orain bost ditu aurretik, azken jardunaldia jokatu ahal izateko. Minarekin edo minik gabe, Gonzalez-Barriolak 22-19 gaititu zituzten Olaizola I- Ruiz herenegun Tolosan. Garaipen honen ondorioz, sailkapen nagusian bigarren postuan aurkitzen dira beste lau bikoterekin batera. Antzera, lau garaipen eta hiru porrotekin, Oinatz Bengoetxea eta Ruben Beloki aurkitzen dira, asteburuan Titin eta Pascual 20ean utzi ostean.

Azken jardunaldia asteburuan

Binakako Txapelketako lehen fasea asteburuan amaituko da. Ondoren, lau bikotek aurrerajarraituko dute. Leitzarrei dagokionez, Oinatz Bengoetxeak larunbatean jokatu du Iruñean. Barriolak berriz, sendatu ezker, igandean jokatu beharko du kanporaketako azken partida Donostian.

T Telefonoak Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen.: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarri autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Lurrarmendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Pello Olanori bi urteko zigorra jarri diote

Lizartza » Espainiako Auzitegi Nazionalak Regina Otaolaren aurkako «mehatsuak» frogatuz eman ditu.

A. IMAZ

Pello Olanori bi urteko zigorra eta 12.000 euroko isuna jarri dio Espainiako Auzitegi Nazionalak, Regina Otaolari «hil egingo zara» esan ziolakoan. «Mehatsuak frogatuz» gelditu omen dira epaiketan. Epaitegiaren erabakia lau ertzainen eta Alderdi Popularrako Otaola eta Julia Tercero zinegotziaren testigantza oinarritzen omen da. Auzitegiaren erabakiak honela deskribatzen du eguna:



Regina Otaolak 'hil egingo zara' entzun omen zuen ekitaldi honetan. A. IMAZ

«2007ko irailaren 7an, 30 pertsona elkartu ziren udaletxe aurrera. Regina Otaola Espainiako Bandera zintzilikatzerara zihoan omen,

protesta ohiak jaurtiki zizkionten. Otaola kanpora edo alkateari txerria deituz. Une horretan, Olanok behatzarekin alkatea seinatu

zuen, Otaola hil egingo zara esanaz».

Espainiako Auzitegi Nazionalaren esanetan, mehatsu hauek ETaren ekintzarekin zerikusia dute, «erakunde terroristako izan ez arren, bere helburuetarako ekarpena egiten du pertsona honen».

Fiskalak zigor handiagoa eskatu zituen epaiketan, besteak beste 8 urteko espetxe zigorra.

Gaur epaiketa berri bat

Egun berean gertatutako «irainen kasu batengatik» gaur epaituko dute beste herritar bat Donostiako Atozako auzitegian 10:45ean. Li-zartzar honi babesa eskaintzeko asmoz, herrian 09:45ean gelditu dira Donostiara joateko.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Alegia.** Emakumeen afaria izango da Txintxarri jatetxean, martxoaren 7an. Prezioa: 15 euro. Alegiako Udalak afariaren erdia ordaintzen du (menua berez, 30 eurokoa da). Tikitak salgai daude martxoaren 4ra arte Kultur Etxean. Menua: entsalada epela, entrekota...

■ **Alegia.** Odola emateko aukera izango da bihar, Alegiako medikuaren etxean, 19:00etatik 21:00etara bitartean.

■ **Tolosa.** Inauteriak direla eta, aste honetan ez da zine saiorik izango Leidor aretoan. Datorren astean izango dira berriro.

Kirola

■ **Alegia.** Iganderako, hilaren 22rako, Elgea-Degurixe mendi irteera antolatatu du Alegiako Mendi Asanbladak.

■ **Villabona.** Villabona - Uzturre (711m) - Tolosa goizeko irteera antolatatu du Aizkardi mendi elkartearen hilaren 22rako (Inauteriak). Izen-ematea, elkartearen bertan egin daiteke ostegunetan 20:00etatik 22:00etara (649 717182).

Irteerak

■ **Villabona.** Martxoaren 5ean jubilatua Oñatira joango dira. Egitara: Arantzazuko santutegia eta Arrikritz kobazuloak bisitatuko dituzte. Sorluze jatetxean, bazkaldu ondoren Oñati bisitatuko dute. Prezioa 25 euro. Izena Aiztondoko bulegoetan eman behar da. Informazio gehiago telefono zenbaki honetan: 943 69 39 30.

Erakusketak

■ **Alegia.** Asteartetik igandera bitarte, jubilatuen taberna hiru herrialdetako argazkiak daude ikusgai: Argentina, Kuba... Gehienbat bertako jendearren argazkiak daude, guztira 18 argazki izango dira jubilatuenetan.

■ **Tolosa.** Juan Bautista Aranzabe Materen Inauterietako argazki zaharrak Amarotzko auzo etxean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Kantu liburuxka osatzea helburu

Tolosa » Hilabetero kantu jira antolatzeaz gain, Tolosa Kantari ekimenekoek kantu liburuxka osatu nahi dute.

ERREDAKZIOA

Tolosa Kantari ekimenaren sustatzaileek urrats bat gehiago eman nahi dute. Hala, kantu sorta bat egiteko proposamena zabaldu dute. Hau da, kantu liburuxka bat plazaratu nahi dute. «abestien letrak eskura edukitzeko hileroko kantujiran edota nork bere ospakizun eta ekitaldietan», azaldu dute.

Proposamen hau besapean zutela, Tolosako elkarteetara jo dute «ikusteko ea prest egongo liritekeen kantu liburuxka batzuk erosteko eta, behin jakinda zenbateko tirada egin dezaketen, liburuxka plazaratzeko». Kantu sorta 80ren bat abestirekin egin nahi dute eta «prezio txukunean», mundu guztiak eskuratzeko moduko prezioan, hain zuzen ere.

Dagoeneko Tolosako elkarte batzuk baietza eman diote proiektuari eta zain daude ea gainerakoek zer erantzuna ematen dieten, lehenbailehen argitaratzeko liburuxka. Hortaz, hemendik dei egiten diete oraindik erantzun ez duten elkartei, «laster eman dezaten erantzuna».

Urtarrileko saioan, Inauteri doinuak

Joan den urtarrilaren azken larunbatean Tolosako Alde Zaharra euskal doinu eta kantuz alaitu zuten Tolosa Kantari ekimenean parte hartu zuten kantuzaleek. Ohiko abestiez gainera, Tolosako inauterietako kantuak abestu zituzten Bonbereneako txarangakoekin. Euskal eta inaute giro alai zabaldu zuten Tolosako kale eta plazetan.

Jakina denez, Tolosa Kantari ekimenaren bultzatzaileek joan den urteko ekainaz geroztik ari dira euskal kantuzaletasuna sustatzeko asmoarekin, hilero azken larunbatean eguerdiko 12:00etatik aurrera kantujira antolatzen Tolosako Alde Zaharreko kaleetan.

Datorren kantujiraren hitzordua otsailaren azken larunbatean, otsailaren 28an, izango da, ohibeza, 12:00etatik aurrera. Oraingo honetan Tolosako dultzaineroen laguntza izango dute.



Pasa den hilabeteko saioan Bonberenea Txarangakoek laguntza izan zuten Tolosa Kantari ekimenekoek. HITZA

A Agurrak



Urte askoan!

Añer Arrieta Kortajarena (Amasa). Gaur urtebete. Muxu handi bat familiaren partetik.



Urte askoan!

Joxe Manuel (Lizartza). Urte askoan! Etxeko partetik eta bereziki Eñauten partetik.

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa